

Aurreko urtarrilaren 22an Katakarak-ek "Orea eta Kultura masa" antolatutako ekintzaren baitan egindako aurkezpena.

XX. Mendearen hasierara eraman nahi zaituztet, Pireo edo Tesalonikako kaietara, Smirni edo Istambuleko gaueko tabernetara, baztertuen topaguneetara, gartzeletako ziegetara... Otomano inperioaren bukaerarekin batera, Egeo itsasoaren bi aldeetan Grezia eta Turkia estatu modernoak sortu ziren. Industrializazioarekin batera ere, langile klasea sortu zen. Bitartean, mugaren bi alden arteko gerraren ondorioz errefuxiatuen mugimenduekin batera nekazal guneetatik hiri handietara joandako etorkinen mugimendua ezagutuko du Greziak, behar bada azken 200 urteetan ezagutu duen iraultza demografikorik sakonena.

Testuinguru horretan, gizartetik pertsona asko bazterretan aurkitu zuten haien burua, eta kultura propio bat sortu zuten. Gaur, Rembetikoari buruz hitz egingo dugu.

Rembetiko hitzarekin bataiatu zuten XIX. mendearen bukaeran sortutako hiritako herri musika. Musika estilo hori XX. Mendearen hirugarren hamarkadan zabaldu zen, Greziako hiritako kaietan batez ere (Pireo, Tesalonika edo Volos) eta ondoren hiri handietako hirierdietan hedatu zen. Garai horretan, beste estilo bat ere jaio zen Patra hirian, Tabajana izeneko estiloa.

Ταμπαχανιώτικο ζεϊμπέκικο Πάτρας - Μπάμπης Γκολές

Rembetiko hitzari dagokionez

Panos Sabbopoulos Rembetiko estiloaren ikasle eta ikertzailea izan zen, eta izen horretarako 15 bertsio etimologiko aurkitu ditu. Hitza bera, lehenengo aldiz, 1910 eta 1913 urteren artean agertu zen bi disko ezberdinetan.

- Lehena Istanbulen*, ORFEON RECORD entpresako disko batean. APONIA abestia zeukan diskoak, eta izenburuaren parean REMBETIKO hitza agertzen zen.

Ελληνική Εστουδιαντίνα-Απονιά(Ρεμπέτικο)

- Bigarren aldian, Istanbulen ere, 1912 urtean, **TikiTikiTak** abestia zeraman disko batean.

Rembetiko abesten duen artistari "rembete" deitzen zaio, baina 30 hamarkadan haien beraiek sortutako abestiei "herri abestiak" deitzen zieten, 60 hamarkada iritsi arte "rembetiko" hitza ez zen erabiltzen. Orduan Ilias Petropoulik aurreko hamarkadeetako musika estilo ezberdinak batu zituen izendegi amankomun batean, nahiz eta haien arteko harreman musikologiko gutxi egon. Estilo horiek *Smirnaika*, *Politika*, *Mourmourika* eta beste estilo batzuk ziren.

Ilias Petropoulos, *Rembetiko*aren ikertzaile handia izan zen eta bere usteetan *Rembetikoa* hiru garai izan zituen:

1922-1932 Smirnitik ekarritako estiloaren nagusitasuna.

1932-1942 Garai klasikoa

1942-1952 Garapen garaia

Aurrehistoria

Nahiz eta etimologia mende honetakoa izan, *Rembetiko*aren jatorriak 1834 urtera eramaten gaituzte, Atenaseko Medrese Gartzelan *mourmourika* estiloa jadanik ezaguna zen presoen artean.

Γιάννης Λεμπέσης - Μουρμούρικα της φυλακής

Garai haietan, ere, Babaroen musikak, batez ere polkak Atenaseko burgesian sartzen da. Bitarte horretan, kaleetan eta plazetan *mourmourika* eta *sebdalitika* estiloen garapena ematen da. Pireoko kaiaren inguruan rembetikoaren aitzindaria den "*gialadika*" izeneko abestia sortu zuten.

1922 urtean Turkiako ejerzitoa Mikrasian sartzen da eta milaka greziarrek alde egin eta Atenas eta hiri handietara iritsi ziren, orduan *rembetiko* aurreko abestiak Mikrasiatik eta Bosforotik ekarritako estiloekin nahasten dira. Orduan *amanetzidiko* estiloa agertu zen indar handiz.

Στου Θωμά το μαγαζί

Geroago Kafe Aman estiloko abestiak agertu ziren, orduan Rembetiko musikak garapen zabala ezagutu zuen.

Kafe Aman, gerra aurreko Atenaseko kafetegi mota bat da, bertan bi edo hiru abeslari topatzen ziren eta amanetzides abestiak inprobisatzen zituzten, haien arteko elkarrizketa sortuz melodia eta musikarekin batera.

Abesti horietan mahiz entzuten da "aman aman" erritmoari eusteko estribiloa, inprobisatze ariketan denbora irabazteko baliatzen du abeslariak bertso berriak sortzeko. Batzutan ere "Kafe Santur" izena baliatzen zuten Smirnitik zetorrena.

"Kafe Aman" horiek debekatu zituen Metaxas diktadore faxistak 1937 urtean. Debekaturik zeuden eremu publikoan kutsu turkoa zeukatela argudiatuz. Gauza bera gertatu zen Turkian, bertako gobernuak *rembetikok* kutsu greziarra zeukala argudiatzen zuen bere aldetik.

Μες τον τεκέ της Μαριγώς (Τζίνα Δαλάκα)

1922 Turkia eta Greziaren arteko mugaz gaindiko biztanleriaren elkartrukaketa eman zen.

Mikrasiatik heldutako errefuxiatuak Greziako hiri handietara iritsi ziren, eta haiekin bere musika, dantzak eta tradizioak. Atenasen "Nea smirni" auzoa sortu zuten, haien kultur elkarteak eta anaitasun taldeak sortu zituzten. Bertako greziarrek ez zieten begi onez hartu, gaurko etorkinak pairatzen ari diren arrazakeria jaso zuten, nahiz eta kulturalki greziarrak izan eta greziar hiztunak izan "turkosporo" dietzen zieten (Turkiar hazia).

Lehenengo garai horietan maitasun abestiak, eta “*mangika*” estiloa nagusitzen dira. Estiloa hau droga eta gartzel historiekin lotuta zegoen.

GARAI KLASIKOA

1932koa, musiko asko agertu ziren, eta *rembetikoari* eskainiko diote haien denbora guztia.

Garapen hori Metaxasen garaian moztu zen, eta drogei lotutako abestiak grabatzeari utzi zieten. Garai haietan emakume judutar batek, **Roza Askenazi**, “*Zergatik erretzen dut kokaina*” izeneko abestia argitaratu zuen.

ΓΙΑΤΙ ΦΟΥΜΑΡΩ ΚΟΚΑΪΝΗ ΡΟΖΑ ΕΣΚΕΝΑΖΥ

1940 urtean, Mussolinik Metaxasi bere ejerzitoa Grezia okupatzea proposatzen dio, eta Metaxasek hitz bakar batekin erantzuten dio “EZ” (oxi), hortik gutxira Italiar ejerzitoa Albaniara heltzen da Grezian sartzeko asmoarekin. Greziar ejerzitoak mendiak zeharkatu zituen, armak mando ta astoen sorbaldeetan kargatuta, eta 2. Mundu Gerrako lehenengo garaipen antifaxista izan zuten, nahiz eta erregimen faxista baten garaipena izan zen ere. Urriaren 25ean, Albaniako Pindos mendian Greziarren garaipena gauzatu zen, orduz geroztik egun nazionala da Grezian. Beste herrialdetan ez bezala, gerraren hasiera ospatzen dute Grezian eta ez, ordea, bukaera eta askapena hortik dator ere faxismoarekiko hainbat Greziarrek duten jarrera anbigua.

Ondoren Alemanak sartu ziren eta disko etxe guztiak itxi ziren, 1946 urte arte ixilik gelditu zen Greziako musika.

EKOIZPEN HANDIEN GARAIA

Gerraren bukaerarekin *Rembetikoaren* debeku eta klandestiniteatearen bukaera ematen da, bazterketa sozialetik aterako da eta gizarte osoko ondasuna bilakatzen da. Abeslari berriak agertzen dira eta eboluzio berriak ematen dira ere. 50. hamarkadarako “*Rembetiko*” bere forma garbienean hilik zegoen eta *Rembetiko* egiteko modu berriak agertzen dira.

60 hamarkadan lehenengo berritzea ematen da.

ΘΑ ΠΑΩ ΕΚΕΙ ΣΤΗ ΑΡΑΠΙΑ - ΓΛΥΚΕΡΙΑ

Rembetiko musika estilo ezberdinetatik hartzen ditu doinuak. Musika hau jotzeko bi tresna oinarrizkoak dira, Turkiatik etorritako buzukia alde batetik, eta, kretar lirarekin lotutako baglamana beste aldetik.

Rembetikoaren musikariek hiru dantzetako erritmoak baliatzen dituzte: *zeimbetiko*, *jasapiko* eta *serbiko*.

Zeimbetiko 9/8 oinarrizko erritmoa baliatzen du, pontioen eta zikladeetako dantzetatik dator. Pertsona bakar batek dantzatzen du, mugimenduak inprobisatuak dira eta arau bakarra buzukiren erritmoari heltzea da, notarik galdu gabe. *Zeimbetiko* dantzari onena dantzari ekarpen plastikoa fantasia handiagorekin ekarriko duena izanen da. Buzukiaren nota

bakoitzak bere erantzuna aurkitu behar du dantzariaren gorputzean. Dantza konplikatuen delakoa diote, eta esanahi dramatikoena duena esan genezake.

ΖΕΙΜΠΕΚΙΚΟ ΤΗΣ ΕΥΔΟΚΙΑΣ BY MITSOS

Jasapikoa Greziatik at erritmo ezagunena, 4/4 erritmoan oinarrituta bi pertsona edo 3-4ko taldeetan dantzatzen dena.

Ελληνικός χορός Χασάπικο

Serbikoaren erritmoa erabilpen askoz mugatuagoa dauka, eta bere izena balkanetako jatorriari dagokio.

“Σέρβικος” χορός Πολυδενδρίου Αττικής

GAUR EGUN

Rembetiko hedapen handiko kultura da gaur egungo Grezian, aukera paregabea ematen du jendea mahai inguruan eseri eta abesteko, ehunka dira jendeak, gazteak barne, dakizkiten abestiak. Abeslari andana dago herri guztietan, eta elkartasun politikorako bilgunea da ere, izan ere bai bere ekintza anarkistengatik presoak izateagatik edota lantegian greban dauden langileekiko elkartasun gaua dirako aitzaki ezin hobea eskaintzen baitu *rembetiko*ak bai modu materialean (afari animatuak antolatzeke aukera ematen du) bai modu sinbolikoan (*rembetiko* musika memoria kolektiboan duen tokiagatik)

Θα αρχίσω καταλήψεις (Έχω καϋμό αναρχικό) - Εύα Κανέλλη (Okupazioekin hasiko naiz, desio anarkistak dauzkat)

* Grezian, Istanbul esan ordez Konstantinopoli hitza baliatzen da.

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)